

Plazaolak APP bat estreinatuko du bide berdeko gorabeherak identifikatzeko

Datorren ostegunean, hilak 17an) Latasan tailer bat egingo da aplikazioa ezagutarazteko eta boluntarioatza sustatzeko

Bide Berde gisa berreskuratutako Plazaolako trenbide zaharrea herritar asko ibiltzen dira egunero. Zalantzarik gabe, bideko zaindariak dira.

Paseoetan, kirola egiteaz eta inguru zoragarriaz gozatzeaz gain, beti daude bidearen egoerari adi. Horrela, Plazaolako Turismo Partzuergoari edo Udalei gorabeheren berri ematen diete, konpon ditzaten: tunel batean lur-jausi bat, erortzak mendi-magaletan, eroritako zuhaitz bat, seinaleen egoera edo beste edozein hondakin edo zabor. Gainera, ez dira gutxi “auzolanerako” deialdi puntualei erantzuten dietenak, auzokideekin elkarlanean eta bolondrez, bidearen zenbait tartetan oinarrizko garbiketa egiteko.

Txosten xehatuak edo zabor-poltsa eraman: laguntzeko era anitzak

Boluntarioen kasuistika askotarikoa da. Lekunberriko Asun bezalako boluntarioak daude. Bere ibilaldietan, ia egunero, poltsatxo bat eramaten dut bidean topatzen dituen zabor-hondarrak biltzeko eta, ondorioz, bidea garbitzeko..

Rosario eta Antonioren kasua, Lekunberrikoak ere, haratago doa. 2015aren hasieran, Plazaolako Turismo Partzuergoarekin konpromisoa hartu zuten bidean zaintza-lanak egiteko (“amadrinamiento” konpromisoa). Harrezkeroztik, Plazaolako bide berdean aurkitu dituzten gorabeheren 40 txosten zehatz baino gehiago luzatu dizkiote partzuergoari. Txosten horietan zehatz-mehatz kokatzen da gorabehera, deskribatu egiten da, argazkiak erantsten dira eta, gainera, batzuetan baliako konponbideak ere ematen dira.

Joakin, Leitzakoa, beteroa da kontu hauetan. Une oro Plazaolako bidean paseatzeko aprobetxatzen du, eta bidean edozein arazo izanez gero, Udalari edo partzuergoari jakinarazten dio.

Irurtzungo Blanca eta Eduardo sarritan paseatzen dira Plazaolako tarte berritik, Irurtzun eta Latasa artean. Eta mugikorra oinarrizko tresna da. Behar bada, ikusitako gorabeheren argazkiak egiten dituzte, eta partzuergoari jakinarazten diote konpontzeko itxaropenarekin betiere..

Gainera, Lekunberriko Turismo Bulegoak eta Plazaolako Turismo Partzuergoak mezu elektronikoak, telefono-deiak eta bisita presentzialak jasotzen dituzte, bai auzotarrenak, bai bisitarienak ere, bidean gorabeherak izanez gero, komunikatzen baitituzte bidearen mantenimendurako ere euren aletxoak jarritz.

Udalak ere funtsezkoak dira kontu honetan. Gorabehera arinak direnean, neurri handi batean, langile edota baliabide propioekin egin beharreko konponketak egiten dituzte. Baina, gainera, auzolanean ere lan komunak egiteko deia egiten dute noizbehinka, Imozko Udalak 2020an egin zuen bezala.

Azkenik, Iturraskari edo Ondare Elkarteak bezalako toki-erakundeek, tokiko ondarea mantendu eta berreskuratze helburuetan, garrantzi berezia dute bidea zaintzeko lan horietan, eta arlo horretan aktiboki parte hartzen dute ere.



Nafarroa Ezagutu Sareak egindako APP-aplikazioa. Plazaolan estreinatuko da, Trail Gazers BID proiektuaren barruan.

Plazaolako bide berdea, Trail Gazers BID europar proiektuaren onuraduna, izango da Nafarroa Ezagutu Sareak egindako aplikazio honen esperientzia pilotua. Tresna honek bide berdean gertatzen den edozein gorabehera telematikoki jakinarazteko aukera emango die erabiltzailei. Oso erraz gorabeherak geolokalizatzen ditu, eta argazkiak egiteko eta deskribatzeko aukera ematen du ere.

Hain zuzen ere, Trail Gazers proiektuak, Plazaolako Partzuergo Turistikoaren eta Imozko Udalaren laguntzarekin, otsailaren 17an aplikazioa bera eta partzuergoaren boluntarioen programa aurkezteko tailerra antolatu du.

Boluntariotza programa horretan parte hartu nahi dutenek deskargatu beharko dute aplikazioa. Horrela, aplikazio hori esperimentalki erabiliko duten boluntarioen erregistro bat egingo da.

APP hau Nafarroa Ezagutu Sareak du sortu du (Plazaola Partzuergo Turistikoa sarearen kide sortzailea da) eta Plazaolako bide berdean aplikatuko da pilotu gisa. Horrela, esperimentatu eta sareko beste espazio batzuetan ezartzeko aukera baloratuko da.

Hitzordua, alde zurretik eskatuta, Latasan, otsailaren 17an (osteguna), 16:00etan

Latasako geltokiko biltegi zaharra, gaur egun Imozko Udalak taberna-jatetxe (BILTEGIA), denda txiki bat eta bizikletak alokatzeko gune gisa birgaitua, topalekua izango da tresna horren aurkezpena egiteko eta Plazaolako bide berean praktika bat egiteko.

Tailerraren hasierako zatia 45 minutukoa izango da eta bertan Plazaolari buruzko ideiak, esperientziak eta ekarpenak (egoera, gorabeherak, kezkak, etab.) partekatuko dira.

Ondoren, APP-a aurkeztuko da, oinarrizko erabilera erakutsiz eta kanpoan praktika bat egingo da. Proba gisa, mugikorrean gorabeherak eta alertak erregistratuko dira, eta, amaitzeko, aplikazioa kudeatzen duen programan ikusi ahal izango dira Biltegian bertan.

Deialdia zabalik dago, batez ere, Plazaolako bidea borondatez jada zaintzen duten edo egin nahi duten herritarrentzat, baita inguruko udaletako eta mantentze-lanetako brigadetako langileen-tzat eta lurraldeko natur eta kultura-ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko lan egiten duten tokiko beste talde batzuentzat ere.

Toki mugatua dagoenez, alde zurretik erreserba egin behar da 948 50 72 04 (Turismo Bulegoa) edo 948 50 72 05 (Plazaolako Turismo Partzuergoa) telefonora deituz. E-mailaz ere erreserba egin daiteke plazaola@plazaola.org helbidera idatziz eta, bertan, izena, deiturak eta herria adierazita.

Esperientzia horren ondoren, Plazaola inguruko beste udal batzuetan tailerra udaberrian errepikatzeke aukera aztertuko da, ekimen honetara boluntario gehiago erakartzeko asmoarekin.

Lekunberri 2022ko otsailaren 9a